

*Antxiñako fotografixia***Arantzazu 1870 aldera**

Bost mendetako historixan gora-behera haundixak euki ditu **Arantzazuk**. Halako paraje aldrebesian, haitz artian, harro malkartsu eta bilddurgarri haretan elizia, komentua, kolejixua, pelotalekua, hospederixia eta ostatuak jasotia etzan ez huskerixia izan. Urte askotako lanak, frailien ahalegiñak, erromesen limosnak eta beste laguntasun batzuk bideratu ahal izan zittuain obra luze eta nekoso hareik. Gaiñera, ezbiharrak be sarrittan egon ziran; sutiak batez be: 1553an, elizia kenduta, beste dana kiskaldu zan; 1622xan be ixa dana hauts bihurtuta geratu zan; baiña latzena 1834an, lehenengo gerrate karlistan, liberalak su emun otzaiñian suertau zan.

Frailiak sakabanatu egin zittuain eta Arantzazu denbora askuan erdi-hutsik egon zan. Elizia 1846ra orduko itxuratu zan zerbait, baiña frantziskotarrak etziran 1878rarte bueltatu komunidade moduan, hau da, bigarren karlistadia akabota gero. Hemen ikusten dan fotografixia apur bat lehenagokua dozue, 1870 ingurukua. Elizia zutik agertu arren, komentu gehixena zihero hondatuta agiri da orainddio, 1834ko sutiak itxi eben letxe. Ezkerreko eraikuntza hori pelotaleku zaharra izango da eta atzeukuak, barriz, **Milikua** eta **Goiko Benta** ostatuak. Esan daigun, azkenik, argazki hau Oñatin ataratako zaharrenetarikua izango dala.

J. E.

Argazkixa Arantzazuko artxibokua da.

Pintxo bereziak • Kafek**IZARRAITZ
taberna****Giro ezin hobea****Tfnoak: 78 22 47 • 71 61 39 (Etxekoa) OÑATI****PEÑAKOBA****AUTOESKOLA**Arkitekto Lizaur
Tfnoa: 78 05 60 OÑATIZarugalde, 46 Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE